

Bihotzak konkistatu hizkuntzak salbatzeko

David Crystal hizkuntzalari galestar ospetsuak hitzaldia eskaini zuen joan den astean Bilbon Unescoren eskutik. Hauxe hitzaldiaren izenburua: “Zer egin hizkuntza gutxituek biziraun dezaten”. Hiru dira gakoak Crystalen ustez: jendeak hizkuntza salbatu nahi izatea, aginte erakundeak (batik bat nazioartekoak) gaiaz arduratzea eta dirua.

ONINTZA IRURETA

LEHENENGO GAKOAK begien bistakoa dirudiela dio Crystalak, hau da, hizkuntzak biziraun dezan jendeak hizkuntza hori salbatzeko nahia izatea. Bistakoa dirudi, baina ez da hala. Askori ez dio axola, hizkuntza galtzera doa eta “zer egingo diogu bai, bizitza-legea da...” eta horrelakoak esaten ditu —dio berak—.

Alabaina, galestarrak jendearen jarrera hori errespetatzeko eskatzen du. Adibide bat jarri zuen horretarako. Crystal, Hegoafrikan, britainiar kontseiluko kide baten autoan zihoan. Gidariari herrialde hartako hamaika hizkuntza ofizialetatik zenbat hitz egiten zituen galdetu zion eta hark, “denak”. Patrick gidariarentzat gauza arrunta zen hamaika hizkuntzekin aurrera-atzera ibiltzea. Hori bai, bere hurrek batik bat ingelesa ikastea nahi zuen. Hamaika hizkuntza jakiteko aukera izanda, hala-ko altxorra eskura izanda, ingelesa nahi? “Zu burutik eginda zaudel”, gustura esango ziokeen horrelako zerbait hizkuntzalariak Patrick gidariari, baina ez. Hankak lurrean edukitzea gomendatu zuen hizkuntzalariak,



Goian Erein argitaletxeak argitaratu duen *Hizkuntzaren iraultza* izeneko liburuaren azala. Azken hamar urteetan, David Crystalak hainbat liburutan landu ditu ingelesaren izaera globala, hizkuntzen heriotza eta Internetek hizkuntzen erabilera duen eragina. Liburu hau gai horien laburpen eguneratua da.

gizarte maila baxuenean bizi denari ezin eskatu hizkuntzaz arduratzeko; lehenengo osasuna, lana, bizi kalitate onargarria, eta gero hizkuntza. Kontua da nola lortu oreka.

Ingurumena babestu. Eta hizkuntzak?

Crystalen bigarren gako hori da. Batik bat Europako eta nazioarteko aginte erakundeek izan behar dute ardura hizkuntzen biziraupenaz. 2008a izango da bai ingurumenaren, bai osasunaren eta baita hizkuntzaren nazioarteko urtea ere. Galestarraren ustez, ez da txiripaz gertatu hori, hirurak behar dira bizitzeko. Jendea hasi da hizkuntzen balioaz konturatzeko eta guri omen dagokigu nazioarteko erakundeak “gogaitzea” hizkuntzen gaia etengabe mahai gainean jarritz. Hirugarren gakotzat jo du dirua. Hizkuntzei bizirauteen laguntzea garestia dela aitortu zuen, baina kontua omen da zerekin alderatzen duzun. Zifra kalkulua egin zuen orduan: hizkuntza gutxitu bat salbatzeko urtean 200.000 dolar

David Crystalek esanak

✗ Hizkuntzak salbatzeko jendearen bihotza konkistatu.

✗ Lepoa hausten badut toki txikia egingo didate hedabideetan, hizkuntzalaria naiz. Richard Gerek behatza hausten badu azalean agertuko dute. Baliatu artisten mundua hizkuntzen alde egiteko.

✗ Mugimendu berdeak hartutako indarretik ikasi. Zenbat landare eta animalia ari dira hiltzen? Zenbat hizkuntza ari dira hiltzen?

✗ Egizu ondo dakizun hori. Zeure lana egin, ez egon inoren zain.



(140.000 euro) behar dira. Mende honetan 3.000 hizkuntza desagertuko dira. Beraz, horiek salbatzeko urteko gastua 600.000.000 dolarrekoa (420.000.000 euro) litzateke.

“Hamar manamenduak”

Crystalek badu Moisesen tankera, bizar zuri luzearekin. Haren itxuran “Hamar manamenduak” jaso ditu eta hitzaldira bildutakoei eskaini. Ez da Sinaí mendira igo ordea, Jainkoaren eskutik agin-

“Norberaren hizkuntzaz harago begiratu. Hau da hamar aginduetan betetzen zailena, alegia, zilborrari begiratzeari utzi eta distantzia hartu”

DAVID CRYSTAL

duak jasotzeko, urtetako esperientziari esker bildu ditu aginduak. Horietako batzuk dira honakoak:

✓ **Erakutsi jendeari zergatik diren hizkuntzak garrantzitsu.** Batetik, argudio intelektualak erabili behar dira, eta bestetik, jendearen bihotzera iritsi. “Hizkuntzek kezkatzen al zaituzte?” galdetuta oso ohikoa da hauxe erantzutea: “Hobe hainbeste ez bage-nitu, bakarra ere hobe litzateke”. Hiz-

kuntzarik ez bada, mundurik ere ez; eta ez da egia zenbat eta hizkuntza gutxiago orduan eta bake gehiago.

✓ **Erabili hedabideak:** telebista, irratia, sarea... Batik bat sarea. Hizkuntza gehiago dago Interneten liburutegi guztiak bat eginda baino. Sareko edozein modu baliatu hizkuntza biziarteko: e-postak, blogak, txatak, YouTube moduko bideo zerbitzuak... Zergatik aipatu YouTube moduko formulak? Gazteak Internet eta teknologia berrien munduan dabilzako eta beraiek direlako etorkizuna.

✓ **Errespetatu zaharren zein gazteen hizkuntza.** Gazteen hizkera entzunda (askotan maileguz josia) zaharrak aztoratu egiten dira. Adineko horiek gazteek hizkuntza txarra, pobrea darabiltela diote eta gazteei horrelakoak esatea arrisku latza da. Ez dago hizkuntza pobrerik, maileguak ez dira txartzat hartu behar, aldatu ez diren hizkuntza bakarrak hilda daudenak dira.

✓ **Ez da ezinbestekoa hizkuntza guztietan jario ona izatea.** Hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten duen hiztun asko dago munduan eta ez ditugu denak maila berean menperatzen. Askotan esparru bakoitzerako hizkuntza bat dugu, etxerako, eskolarako, kalerako... Kontua

ez da etengabe itzultzen aritzea dakigun mailan hizkuntza hori erabiltzea baizik.

✓ **Ez isolatu hizkuntza.** Hizkuntzak bere adar guztietatik gertu egon behar du. Esate baterako, hizkuntza-literatura pareak eskutik helduta joan behar du.

✓ **Propaganda egiteko bitarteko guztiak erabili.** Jendeak hizkuntzen balioaz jakitun izan behar du. Nork daki datorren urtean Hizkuntzen Nazioarteko Urtea dela? Propaganda egiteko ekitaldiak, hizkuntzez gozatzeko guneak, sariak... antolatu behar dira. Zein museotara joango gara hizkuntzei buruz jakin nahi badugu? Non dago “Hizkuntzaren Sari Handia”?

Ez gutxietsi zure hizkuntza

Hizkuntza gutxituen zerrendan, euskara zein galesa, hiztun kopuruari dagokionez, “top ten”ean daudela dio Crystalek, lehenengo hamarretan, alegia. Beste hizkuntzeekin alderatuz, oso ondo ari omen dira lanean. Dena dela, azpimarratu zuen hiztun kopuruaren araberrako zerrendan goian ala behean izan, hiztun guztiak harro egon beharko luketela.

✓ **Norberaren hizkuntzaz harago begiratu.** Hau da hamar aginduetan betetzen zailena, alegia, zilborrari begiratzeari utzi eta distantzia hartu.

Crystal hizkuntzalaria hitzaldian zehar behin baino gehiagotan esan zuen hizkuntzaz baino hizkuntzetaz hitz egin behar dela, norberarena salbatzen tematu eta besteetaz ahazteak ez duela zentzurik, gurea bezala edo okerrago milaka daudelako munduan. ■

Babeslea: Emun

 EMUN LANA EUSKALDUNTZEKO KOOPERATIBA	HIZKUNTZA AHOLKULARITZA ETA EUSKARAZKO ZERBITZUAK: ■ Enpresa eta erakundearen premiei egokitutako euskara planen kudeaketa ■ Itzulpenak ■ Euskara formazioa Uriburu, 9 behea 20500 Arrasate Tel. 943 711 847 • Martin Ugalde Kultur Parkea 20.140 Andoain Tel.943 300 978 emun@emun.com • www.emun.com
--	---